

Heri Aldizkaria

Otamotz

1997ko abendua 31. alea

Nafar sortzaileak
HITS & FITSek
antolatutako
lau hitzalditan


Edurne Iturbe eta
Andoni Elorza
bigarrenak EITB
Trikiti Sarian

Belengo izarrari
buruzko zenbait
kondaira



Miguel Angel Senosiain, Singapurren dagoen zumarragarrari elkarrizketa.

Harro gaude
zuri hain
automobil
aseguru osoa
eskaintzeaz




SEGUROS LAGUN ARO
ASEGURUAK



La Salleko Ikasle Ohiek 1961. urteko maiatzaren 28an egindako bazkaria.

Argazkia Luis Ormazabalen bildumatik hartutakoa da.

Zure argazki zaharren bat OTAMOTZ aldizkarian argitaratuta ikusi nahi baduzu, jar zaitez gurekin harremanetan 725775 telefono zenbakira deituz edota ZINTZO MINTZOren egoitzara etorriz, Labeaga 12 etxeazpia (Goierri ondoan).



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila eta Hizkuntza Politikarako Sailordetzak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Departamenduak, Urretxuko udalak eta Zumarragako udalak emandako diru laguntza jaso du

Argitaratzailea: Zintzo Mintzo Euskaltzaleen Elkartea, Labeaga kalea 12, 20700 Urretxu. Tel: 943725775 **Erredakzio kontseilua:** Unai Alzelai, Jon Balenziaga, Aitor Esnal, Jonmikel Insausti, Sebas Iturrioz, Idoia Luzuriaga, Jon Ormazabal, Amaia Pildain, Marian Toledo, Asier Zaldúa. **Diseinua:** Sebas Iturrioz. **Informatikaria:** Jonmikel Insausti. **Inprimategia:** GERTU Koop. E (Zubillaga. Oñati) **Lege Gordailua:** SS-742/96 **ISSN:** 1136-7318 **Tirada:** 2.000 ale. **Edizio digitala:** <http://www.geocities.com/Athens/Delphi/2202> **Otamotz** aldizkariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esaneren eta iritzien erantzunkizunik.

Labeaga

- Dietetika
- Estetika

Bidezar, 7 ☎ 72 36 52

Keros Enmarkatzeak

Arte ederrak
Dekorazioa
Opariak

Labeaga,35 ☎ 72 41 61

LIBURUENDIA

GANBARA

Labeaga, 52
☎ eta faxa: 72 50 45

Amona Mantangorri, Zeruan Zer Berri?

Ortzeri so egitera gonbidatzen zaituztet ataltxo honetan. Abendu honetan azken urteetako planeta bilerarik politena gozatu du, eta gaur iluntzean kanpora irteten bazarete, artean ikusiko duzue Artizarra Martitzaren ondoan. Sartaldera begira ikusiko dituzue, ostertz gainean, Artizarraren distira minak, zeruko argi nagusia baita, eta Martitzaren kolore gorrixka, ia ia laranja geniokeena. Izarrak eta planetak bereizteko tinko-tinko begira behar diezue, ke-nurik egin gabe. Orduan ikus dezakezue izarrek dir-dir egiten dutela, baina planeten disdira etengabea dela. Planeta bi horiek *Capricornus* izar-multzoan daude. Izar-multzo honek ahuntzaren burua eta arrainaren gorputza dituen munstroa dirudi.

Hegoalderago, baina oraindik *Capricornus* barruan, Jupiter dugu, Martitza baino askoz distiratsuagoa. *Capricornusek* ahuntz adarra du, haseraria zuzena eta muturrean oker-okerra. Mutur honen ondoan bilatu behar duzue Jupiter erraldoia. Hiru planeta ikusgai izar-multzo berean! Hori gutxi izango balitz, Artizarraren ondoan, *Sagittarius* uztailarian,

Neptuno dugu, baina prismatikoak behar dituzue erromatar itsasoko jauna harrapatzeko.

Izarbel topagune honek Gabonetako kontua dakarrit gogora. Europan zehar Ertaroan Beleneko izarra kometa tankera irudikatu ohi da. Baina 1604 urtean Jupiter eta Artizarra mokoz-moko jarri ziren. Horrela bada, zer gertatuko ote pentsatzeari ekin zioten Europako jakitunek. Batzuen ustez, Lurraren amaiera ekarriko zuen gertaera berezi honek. Besteen arabera, berriz, izar adasduna sortuko zuten izarbel bi horiek. Baina hori gertatu beharrean, bi planeten artean izar berria jaio zen. Kepler astronomo txit gorenak *nova* hau planetek sortua zela uste zuen, eta Beleneko izarra era berean jaio zelakoan zegoen. Orain dakigunez, planetek ez diete inolaz ere eragiten *nova* izarren eztandei. Baina Errege Maguen gidaria noiz agertu zen jakin nahian, kalkulatu asko egin dira. Izarbel topagune erakargarrienak bi dira: K.a. 2 urtean Jupiterrek eta Artizarrak egindakoa, biak oso distiratsuak zeruan, eta K.a. 6an Jupiterrena eta Saturnorena; kontuan iza-



nik Mesopotamiako astronomoentzat Jupiter erregeren eta Saturno apaizen sinboloa dela, eta topagunea *Piscis* izar-multzoan gertatu zela, hots, mesopotamiarren ustezko Palestinaren konstelazioan. Igarkizun honen bidez, errege-apaiz nagusiren bat jaiotzear zegoela Palestinan asmatu zuten Meltxorrek, Gasparrek eta Baltasarrek.

Gauza ikusgarri asko dago zeruan berri emate-

ko. Izar malkoak, Algol izar aldakorra eta abar. Baina erideteko errezena, beste izarbel jobiarra duzue. Iluntzean, juxtu-juxtu buru gainean aurki dezakezue Saturno planeta. Hauetako gau batean kalera irteteko asmoa baduzue, eskaera pentsatuta eraman, urteberri egunean hasi baitzen *Quadrantidak* izar uxo euritea. Adurra!

Iñaki Ekaitz Agirre

Napar sortzaileak

Lau hitz aspertu interesgarri eta ibilaldi ahaztezin bat

Oso gogoan daukagu oraindik Txomin Peillen-ek Urretxuko Udaletxeko Areto nagusian "Jon Mirandaren omenez" eman zuen hitzaldia, musikaz ezinobeto lagundurik. Urtea joan zaigu, bai, baina ez *Premiazko hitzak garai honetarako zikloari* segida emateko gogoia.

Oraingoan hitzaldi sortatxo hau napar sortzaileei eskaintzea, horixe iruditu zaigu egoki. Hitzaldiak ilbeltzaren 16an hasiko dira ta otsailaren 15ean bukatuko, Lizarrara egingo den irteera bereziarekin.

Ilbeltza edo urtarrilaren 16an, ostiralez, *Miguel Sánchez-Ostiz* iruindarra etorriko da. "No existe tal lugar" (Anagrama, 1997) azken eleberria aurkezteaz batera, agertzen joango dira bere idazkera ta burubideei dagozkien xehe-tasunak, errezitaldia eskainiko baitu egileak. Musikaz saioa alaitzen "**Gillermo, Aitor & lagunak**" arituko dira. Liburu asko idatzi ditu Sanchez-Ostizek, bi besterik ez ditugu aipatuko: "Pamplona" (Destino, 1994) gidaliburua eta "Las Pirañas" (Seix Barral, 1992) eleberri bortitza. Hainbat egunkaritan ere idatzi du. Gaurko egunean Diario de Noticias-en irakur ditzakegu bere iritziak igandetan.

Zumarragako Legazpi dorretxean izango da 20.15etan eta aurkezle lanetan Iñaki Bastarrika arituko da.

Ilbeltzaren 23an, ostiralez, bi gonbidatu izango ditugu. *Txema Larreak* "*Nafarroako euskal idazleak XX, mendean*" izeneko hitzaldia emango du, idazlerik nagusien berri emanez. Euskal Herriko Unibertsitateko kazetaritza fakultateko irakasle honek liburu hauek argitaratu ditu, besteak beste: "Mirandaren lan kritikoak" (Pamiela, 1985), "Nafarroako euskal idazleak (I)" (Pamiela, 1987), "Nafarroako euskal idazleak (II)" (Pamiela, 1995), "Euskaldungoa erroizturik" (Pamiela, 1994). Larrearekin batera, **Aingeru Epaltza idazle iruindarra arituko da bere lanari buruz hitz egiten.** "Sasiak ere begiak badituk" (Elkar, 1986) eta "Ur uherrak" (Pamiela, 1993) liburuaren egi-


leak, 1997 urteko Euskadi Saria jaso du "Tigre ehizan" eleberriarekin. Elkarrekin egingo dute biek saioa.

Hitzaldi hau Urretxuko Kultur Etxean izango da 19.30etan. Aurkezleak, Koldo Goitia eta Iñaki Bastarrika izango dira.

Ilbeltzaren 30ean, ostiralez, *Joxe Mari Aranalde* "*Xalbador pertsularia*"ri buruz arituko da. Bertsozale amorratu honek izenburu bereko liburu idatzi berri du oraindik orain, Fernando Aire "Xalbador" bertsolari urepeldarrari buruz. Hainbat bertso gogoangarriren egileak izan zuen bizitza eta egindako lanak hizpide izango ditu. Xalbadorren bertsoak maitasunez kantatzen, Juan Luis Aranburu, Iñigo eta Mikel Peñagari-kano eta Mikel Urteaga izango dira.

Hitzaldia Zumarragako Legazpi dorretxean izango da 19.30etan, aurkezlea Andoni Salamero izango da.

Otsailaren 6an ostiralez, *Jone Lajos iruindarrak Nafarroako unibertsitateko liburuzainak* "*De como se imprimía en el Viejo Reino. El arte negra*". Hitzaldian liburu zaharrez hitz egingo digu. Garai bateko liburuak nola egiten zituzten, inprentak zer nolako eragina izan zuen sortzaileengan eta inprenta nola sortu zen, herriz herriko moldiztegi ibiltariak zer nolakoak ziren eta beste mila kontu bitxi eder. Bitxikeria guzti



Pablo Antoñanak, gidatuko du Lizarrako ibilaldia

hauekin eta bertara hurbiltzen diren guztiek esan eta galdetu nahi duten guztia-rekin, leku jakineko hitzaspertuei amaiera emango zaie, bertara azaldu diren guzti guztiak otsailaren 15eko ibilaldira gonbidatuz.

Hitzaldia Urretxuko Kultur Etxean izango da 19.30etan eta aurkezle lanetan Koldo Goitia arituko da.

Otsailak 15, igandea, Ibilaldi ahazte-zina Lizarrara. Premiazko hitzak garai honetarako sailaren barruan egiten dugun *Napar sortzaileak: lau hitzaspertu interesgarri eta ibilaldi ahaztezin bat*, zikloari amaiera ategin eta desberdina eman nahi genioke, txango edo irteera bat eginez. Gonbidatu berezi bezala, Pablo Antoñana Chasco bianarra, berak, gidatuko gaitu Lizarra (Estella)ko kaleetan barrena, bertan jazotako pasadizu interesgarriak kontatuz eta lekuri adierazgarrienak zeintzuk diren adieraziz. Laister kalean izango du Antoñanak "Tierraestella" liburu, bertako ohitura eta gertakariez gehiago jakin nahi duenarentzat.

Gustavo de Maeztu museoa ikus daiteke, Iratxeko monastegia ere bai eta anai arteko bazkaritxo batekin ziklo honi bukaera eman, napar lurretan, handik iluntze aldera etxeratzeko.

Miguel Angel Senosiain

Euskaldun bakarra

Singapurren



Miguel Angel Senosiain Antia ● 27 urte ditu ● Zumarragarra da ● Lourdesko Ama Ikastolan eta Garaialde lizeoan ikasketak burutu ondoren, Zuzenbide ikasketak egitera joan zen Nafarroara ● Bilbon eta Bradford-en (Ingalaterra) master bat egindakoa ● Nantes-en (Frantzia) lanean aritutakoa ● Bilboko Merkataritza Ganbaran lanean aritu ondoren, merkatu azterketa lanak egitera joan zen Singapurrera ● Egun, lan berbera egiten ari da Irungo enpresa batentzat.

Eta orain Singapurren zaude. Zer hartzen duzu faltan eta zer soberan Singapurren?

Faltan, lehenengo gauza eguraldia. Nazkagarria da (barreak). Oso beroa da. Egutero, 30 bat graduko tenperatura eta %90 hezetasuna dugu. Oso beroa da. Hasieran nekagarria bada ere -izerditan blai zaude-, denborarekin ohitzen zara. Eta hasieran, badakizu ... *non stop!* Bi urte pasa ondoren, izerdi gutxiago egiten duzu. Jendea ere oso desberdina da. Faltan, gauza asko. Esate baterako, batzuetan euskara. Espainiarrak 100 bat eta Euskal Herritarak 5 besterik ez gara, eta inork ez daki euskaraz hitz egiten.

Eta soberan, jendea. Jende gehiegi dago (barreak). Singapur oso txikia da -Gipuzkoaren zabaleraren laurdena du- eta 3 milioi lagun bizi dira bertan.

Zein da zure lana bertan?

Hasiera batean Espainiako Enbaxadaren beka batekin joan nintzen hara. Nire lana hango enpresak hemengo ekonomian sartzea eta animatzea



zen. Harremanak sortzea hango eta hemengo enpresen artean. Eta horretaz aparte, merkatu azterketak egitea. Gaur egun, lan bera egiten ari naiz baina Irungo enpresa baterako lan eginez.

Eta ingelesez mintzatzen zara lanean.

Bai soilik ingelesez. Ez dago beste hizkuntza ikasi beharrik. Ezta beste herrietan, Malasian, Indonesian ... ere. Baina Txinara bazozaz, interpretari behar duzu han inork ez baitaki ingelesez. Txineraz ez dakit, saiatu naiz ... baina, *impossible* da. Oso zaila da (barreak).

Nola definituko zenuke Singapur?

Jendearen aldetik oso jende desberdina dago bertan. Bertakoak eta atzerritar asko ere bai. Oso gizarte konplexua da. Lau etnia nagusi daude: txinatarrak (biztanlegoaren %80), indiarrek, lokalak (mala-

“Beraien lema 5C da: kreditu txartela, kotxea, txaleta, dirua... Hau da beraien bizitzako helburua.”

siarrak) -oso gutxi daude eta okzidentalak. Atzerritarren barruan badituzu japoniar ugari, malasiarrak, indonesiarrak, indiarrek, bangladesh-tarrak ... Oso gizarte konplexua da, eta gainera txinatarrak ekonomi mailan diru asko dute. Beraiek dena egiten dute.

Erljio pila ere bai, beraz.

Guztiak (barreak).

Etniak, erlijioak, ... hizkuntzak.

4 hizkuntz dira ofizialak. Ingelesa, mandarina (txinera), malasiarrena *bahasa* izenekoa (bertako hizkuntza) eta tamil indiarrena.

Eta euren artean, nola

moldatzen dira? Ingelesez ...

Bai. Eta oso berezirik bizi dira etnia guztiak. Alde bakoitzetik txinatarrak, indiarrek, malasiarrak eta okzidentalak. Dena dela, orain hasi dira etnia desberdineko lagunen arteko ezkontzak etab. Lehen bat ere ez.

Beraz hori seinale ona.

Bai.

Beraz, nolakoak dira g i z a - h a r r e m a n a k Singapurren? Zer egiten du han jendeak?

Lan, lan, lan eta lan. Lan besterik ez. Ordu asko sartzen dituzu han, baina ordu asko. Goizeko 9etatik, gaueko 8ak, 9ak edo 10ak

arte. Eta larunbat guztietan ere bai, goizetan egiten da lan. Eta horrez gain, bakarrik 15 jai-egun dituzu urtean opor gisa. Lehenengo urtean bakarrik 7 egun. Eta gero urtero, egun bat gehitzen dizute 14ra iritsi arte. Lan asko egiten dute (barreak). Horregatik daude dauden lekuan.

Singapur oso hiri moderno da. Madril baino modernoagoa. Eta jende asko mugitzen da. Bizitza oso azkarra da.

Eta jendea ez da erretzen lan-erritmo horrekin.

Ez, oso handizaleak dira eta beraientzat garrantzitsuena dirua eta kotxe bat edukitzea da, eta kotxeak oso garestiak dira han - hemen baino 4 aldiz gehiago balio dute-eta-.

Begira, beraiek badaukaite lema bat 5C izenekoa: *credit card* (kreditu txartela), *car* (kotxea), *condominium* (txaleta, igerilekua eta guzti), *cash* (dirua) eta beste C bat orain oroitzen ez dudana. Eta beraientzat hori da bizitzako helburua. Beraiekin harremanak izatea nahiko zaila da. Batzuetan atzerrian izan den jendearekin hitz egin dezakezu. Bai, oso itxiak dira.

Eta lanaz aparte, ez al da jairik?

Bai, badituzte. Adibidez, hemengo Kristau Gabonak, indiarrek beste bat badute -*dipabari* izenekoa-, txinatarrak *New Chinese Year* delakoa (urte berri txinatarra), baita malasiarrek, musulmandarren festak, edo tamilek

beraienak ere.

Eta nola dabil lan egoera, bertako ekonomia? Aste hauetan inguruko krisi ekonomikoaz berri ugari entzun dugu.

Oso oso herri gaztea da. Orain dela 30 bat urte, independentzia Malasiatik bereiziz lortu zutenean, ez zuten ezer ere ez. Gero txinatarrak hasi ziren lanean eta oso langileak direnez, oso ondo egin dute. Eta orain ekonomia Singapurren ondo dago. Zerbitzuetara zuzenduta dago oso herri txikia delako eta bere mugak dituelako. Nahiz eta krisia izan, nahiko ondo dago. Gaur lagun batekin hitz egin dut eta une honetan egoera ondo dagoela esan dit. Baina, Malasian, Tailandian, Filipinak Uharteetan oso gaizki daude orain.

Eta Zumarraga-Urretxuko lagunei gomendatuko al zenieke

“Singapurren izan dudan esperientzia oso ona da. Bertan lana aurkitzea zaila bada ere, oraindik posible da.”

hara joatea?

Bai, oso esperientzia ona da. Oso ona. Hala ere, nahiko zaila da lana aurkitzea. Multinazional asko dago eta hala ere, lana lortzea ez da erraza baina posible da. Bertako enpresetan ordea, oso zaila da beraiek oso itxiak dira-eta. Ez dute gustuko zuriak lan egiteko dugun era. Beraiek lan egiteko bere era dute eta hori dela eta, oso zaila da beren erritmora egokitzea. Baina multinazional asko dago eta hori lana lor daiteke. Agian, orain krisia dela eta, lana aurkitzea zailagoa da.

Eta nola ikusi duzu Zumarraga-Urretxu etxera itzultzean?

Berdina. Dena dela, ni hona natorrenean txip-a

aldatzen dut. Herria nahiko berdina. Hori bai, etxe berri asko egiten ari dira, jende asko ezkontzen ari da, baina bestalde nahiko ondo. Hemengo bizi-kalitatea askoz hobea da.

Hemengoa, hangoa baino?

Bai, hemen jendeak badaki denbora aprobetxatzen. Hango jendearen helburua lan, lan eta lan egin besterik ez da.

Nola jasotzen dituzu hemengo berriak?

Internetez (barreak). Gaztelerazko paperezko egunkari bakarra El País Internacional da, eta ez da oso ona. Gero, Internet bitartez egunkari elektronikoak irakurtzen ditut, baita Otamotz aldizkaria ere,

Zumarraga-Urretxuko berriz hornituta ...

Asmorik al duzu han geratzeko?

Oso esperientzia onuragarria izan da, eta asko ikasi dut han, baina ez litzaidake gustatuko han geratzea.

1998ri zer eskatzen diezu? 5C (barreak)?

Esperientzia gehiago izatea; oraingoz hara itzuli behar dut, beraz han gauzak ondo joatea. Badakit ez naizela han geratuko. Beraz, gauzak horrela planteatu behar ditut: han denbora ahalik eta hoberen aprobetxatu.


Hango jendearekin harremanak izatea oso zaila da, eta atzerriko jendea beti tokiz toki mugitzen ari da, beraz ... ez dakit. Hango bizimodua, batzuetan gustatzen zait eta beste batzuetan ez zait gustatzen. Baina gauza asko falta dira ... familia, lagunak ... bertako harremanak oso artifizialak dira, jendea asko mugitzen da ... nire lagunik onenak Londonen, Malasian, Hong-Kong-en, Australian daude ... eta horrela oso zaila da harremanak egitea.

Zorte on, eta ea urtebete barru berriz elkartzen garen ...

Mila esker.



Nabaritzen al duzu urtarrileko aldapa?



Manuel Ramos

Bai, nabaritzen da. Gabonetan gehiegikeriak egiten ditugu, kontsumo gizarte honek bultzatuta.




Fernando Garcia

Gabonetan gehiegikeri asko egiten ditugu bai. Eta ondoren urtarrileko aldapa asko nabaritzen da. Ni gainera pentsionista naizenez, gehiago nabaritzen dut.



Carmen Solis

Nire ustez urtarrileko aldapak ez du inongo eraginik. Gure etxean, beharrezko jakientzat diru bat uzten dugu eta kitto. Honela ez dugu aldaparik izaten.



J. A. Mendizabal

Ez da nabari. Nere ustez hilabete bat gehiago besterik ez da.



Juani Perez

Ez. Beherapenetan ere berdin-berdin kontsumitzen baita. Janarian bai, ez da aurreko hilabetean adina gastatzen.



Alexandra Torroleo

Hemen ez naiz konturatu etorri berria bait naiz. Kolonbiarra naiz eta han bai. Oso nabaria da aldapa izan ere, abenduaren 31tik aurrera produktuen prezioak asko garestitzen ditu gobernuek. Gasolinak adibidez, %25ko iguera izaten du.




BAPRI

Animaliadenda

Txoriak, arrainak, katuak, dordokak

Urdaneta, 3 ZUMARRAGA ☎ 72 61 13

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:
En la edición de esta publicación colabora:

 **kutxa** fundazioa
fundación

BIONA

AROSZTEGIA

Altzariak neurritan

☎ eta faxa: 72 02 55
Erratzu, z/g URRETXU

Akordeoilari sarituak

Musika ikastetxeko ikasleek Arrasaten eta Edurne Iturbek, Andoni Elorzarekin batera EITB trikiti txapelketan sari ezberdinak jaso dituzte.

Aurreko hilabetean burutu zen Arrasateko Akordeoi Lehiaketa eta bertan, Sekundino Esnaola Musika Ikastetxeko ikasleek, sari mordoska bat lortu zituzten. Arrasateko Akordeoi Lehiaketa honetan hiru azpitxapelketa izaten dira. Nazioartekoa bata, Gipuzkoako Lehiaketa izena duen beste bat eta Gipuzkoako Jaialdia izeneko beste bat. Hain zuzen ere azken honetan lortu dute arrakasta bertako soinujoleek.

Guztira, Musika Ikastetxeko zortzi soinujole aritu dira eta guztiek ere, sariren bat eskuratu dute. Soinua ikasten denbora ezberdina daramate. Bartzuk urtebete baino ez daramaten bitartean, beste batzuk zazpi urte ere daramatzate. Miren Balenziaga irakaslearen araber, astean bitan izaten dituzte klaseak eta batzbeste egunero ordubete ensaiatzen dute. Gainera, ia hilabetero, Musika Ikastetxeak antolatutako kontzertuetan jotzen dute. Hala ere, Arrasaten, gehientsuenak urduri ari-



Sekundino Esnaola Musika ikastetxeko ikasle sarituak.

tu ziren. Aurrera begira maiatzean Bizkaian egingo den txapelketa batera joango dira eta hurrengo urtean ere, aurtengoan izandako arrakasta ikusi ondoren, berriz ere Arrasatera joateko asmoa agertu dute.

Bestalde Durangoko txapelketan, Argiñe Camara eta Mirian Romanek, infantil eta senior mailan, bigarren sariari zegozkion kopa bana eskuratu dute hogeita mila pezetarekin batera.

Hauek izan dira sarituak:

- | | |
|------------------|-------------------|
| ✓MirenArbonies | Urrezko domina |
| ✓AmaiaLizarraga | Urrezko domina |
| ✓LeireGoenaga | Urrezko domina |
| ✓Ines Aztiria | Zilarrezko domina |
| ✓AitorAreizaga | Zilarrezko domina |
| ✓Ana Vieco | Zilarrezko domina |
| ✓Maialen Fidalgo | Brontzezko domina |
| ✓Izaro Angulo | Brontzezko domina |

Iturbe-Elorza bikotea bigarren EITB Trikiti Sarian

Edurne Iturbe urret-xuarrak, Andoni Elorzarekin batera EITB trikiti txapelketan bigarren saria eskuratu du. 8 urterekin hasi eta gaur egun arte, 11 urte daramatza soinua jotzen. Tartean, biolontxelo 3 urtez jo du eta azken bi urteetan ere pianoa ikasten ari da. Billabonan, Martin Musika Etxean eman zituen lehen urratsak trikitixan. Lehen hiru urteetan numeroz ikasten aritu zen. Beste urtebete bat aurrez-aurre irakaslearen aurrean jarri, honek nola jotzen zuen entzun eta ondoren belarriz ateratzen zuen kanta eta azkenean, solfeoz ikasi zuen. Martin Musika Etxean, Azkonabieta, Maixa eta Iker Goenaga soinujoleak izan zituen besteakbeste irakasle. Egun, Sekundino Esnaola musika ikastetxean eta A r e t x a b a l e t a k o Leizarrako musika ikastetxean klaseak emateaz gain, ingeles magisteritzako bigarren maila ikasten dabil.

Puntu bakar bategatik bigarren

Iparragirre anai arre-bak EITB trikiti txapelketako irabazleak, Iturbe-Elorza bikoteak baino puntu bat gehiago eskuratu zuen. Urretxu-Zumarragako bikotea garaipenetik oso gertu ibili zen baina hala ere, Edurnek, ez du aparteko penarik. Iparragirre bikotea irabazteko faboritoa zela dio eta beraiek eginiko bigarren postuarekin gustora agertu da. Azkoitiako kanporaketan lortu zuten finalerako txartela eta behin finalean zeudela, lasai aritu omen ziren. Ordenean zazpigarren jotzeak ere asko lagundu zien. Jendea girotuta egotean, gustorago jotzen delako. Porrusalda, fandangoa, arin-arina eta trikitixa jo zituzten, azken hau, Edurne Iturbe berak asmatutakoa.

Lehen bi ordu entsaiatzen zituen egunean eta garai batean, hiru urte-tan, egunero-egunero jo zuen. Hala ere, gaur



egun ez du horrenbeste entsaiatzen nahiz eta txapelketari begira, normalean baino gehiago saiatu den.

Edurne Iturbe 9 urterekin hasi zen txapelketan. 14 txapel ditu etxean eta oroitzapenik onenak, Zeanuriko txapelke-

tan eskuratutako lehen saria, trikiti pieza berrien lehiaketan ahizparekin batera porrusalda piezan lortutako bigarren saria eta Andoni Elorza bikote duela EITB trikiti txapelketan lortuberritu duen bigarren saria ditu.

Bertiz Jaurreritik Baztan bailarerraino ibiliz

Gaurkoan, Ostadar Mendi Taldeak lehengo urtean egindako ibilaldi baten deskribapena eskaini behar dizuegu. Bisitatzeko ingurua Bertiz Jaurreria eta Baztan bailara, zalantzarik gabe Nafarroako ingururik ederrenetariko bat.

Ibilbidea Sunbillan hasten da, eta mendian barrena pasatuz eta mugaz muga ibiliz Baztan bailarara iristen da, Azpilikueta hain zuzen.

Ibilbidearen informazio gehiago nahi izanez gero Ostadar Mendi Taldeko egoitzan, Zumarragako Jai-Alai kaleko 4. zenbakiko helbidea duen egoitzan galde dezakezue.

Bertiz Jaurrerian eta Baztan bailaran.

SUNBILLA (108 m).

Herriaren hasieran, ezkererantzako lehendabiziko kalea hartu eta porlanezko pista bat aurkituko dugu; hemendik jarraitu eta bidegurutzean ezkerretik errekaraino jaisten den hartxintzarrezko bidea jarraituko dugu. Pista hau jarraituko dugu eta baserri batzuetatik igaroz, mendi-bizkarra lepo batean topatuko dugu.

Toki lauan, ordekan pixka bat ibiliko gara eta bidegurutzean ezkerretik jarraituko dugu, agertzen diren marka zuri-horiak kontuan hartu gabe. Alanbre-hesi bat eta harlauza handiz osatutako harresi batekin topatuko gara. Bost minutu igaro ondoren, pista

Ibilbide honetan bertako zenbait herritarrekin gustura izan ginen eta zenbait bitxikeria kontatu zizkiguten:

"... Herriko taberna? Estankoa zen, baina bertako andrea jubilatuta eta dena itxi zuen. Orain hona etortzen gara, errepideko tabernara ..."

"... Kalifornian lanean aritu nintzen, orain dela hogeita hamar urte itzuli nintzen eta orain ia itsu nago. Etxean igaro ditut hiru urte izan ezer ikusi gabe ..."

"... Asko bidaiatu nuen; Torrelavegan, negozioak egin nituen ..."

"... Zu ororen hasieran zaude, mendi anitz geratzen zaizkizu korritzeko ..."

(Amaiurreko gizon zahar bat)

"... Lautan hogeitaz urte ditut, Mugairekoa naiz, ia hemen bertakoa. Astean behin etortzen naiz Amaiurrera, gazta erosteko; Kalifornian ditudan hiru semeei bidaltzen diet ..."

"... Giputzak zaretela? Industria anitz, ezagutzen dut bai, hara joandako jendea. Hala da bizitza, batzuk Gipuzkoara, beste batzuk ordea, Kaliforniara ..."

"... Bihar Elizondoko feria eguna da, nire etxean bazkaltzera gonbidatzen zaituztet. Axuri ona, legatz ona ..."

"... Sunbillan duzuela autoa? Mugaireraino eramane zaituztet, beharbada Sunbillaraino gazta-pintxo bat hartzen badugu ..."

(Mugaireko gizon zahar baten abegikortasuna)



utzi eta eskuinerantz igo beharko dugu, alanbre-hesia eta harlauzen ondotik. Orbelaz estalitako aldapa labur baino bortitz batek, SALIÑA muinoraino eramango gaitu (564 m).

Pagadian, kordala jarraituko dugu, beti ezkerretik eta harlauzen harresia-
ren ondotik ibiliz.

Era honetan, SAGASTA muinoa (646 m) gaindituko dugu. Aldapa gogor batek ESKIU leporaino (550 m) jaitsaraziko gaitu. Eskuinean, BERTIZ JAURERRIAN sartarazten gaituen metalezko ate bat topatuko dugu eta pagadi eder batez inguraturiko pista batera, ORONOZ-MUGAIRE eta AIZKOLEGI mendia elkartzen dituen era irtengo gara. Pistatik 9. Km-ko mugarriraino igoko gara eta hamar bat minutu beranduago, eskuinetik irteten den bide zabal batetik jaitsiko gara; honek PLAZAZELAI lepora (535 m) eramango gaitu, non beste bidegurutzetako bat topatuko dugun.

Ezkerretik, Oronoz-Mugaire-tik ORABIDEArainoko errepedieraino igoko gara. Errepide hau zeharkatu eta eskuinean, hurbilean dugun baserri baterako gurrupidea hartuko dugu. Baserrira iritsi baino lehen, iturri batera doan ezkerreko bide-zidorra hartuko dugu. Ezkerreko bidetik jarraitu eta urrutian ikus daitekeen pago bakarti bateraino igoko gara. Hemen eskuinerantz biratuko gara eta pagadiaren ertzetik igoko gara. Bide-zidorra hirutan banatzen den tokian, erdiko zidorretik, aldapatsuen denetik igoko gara; berehala beste bide bat zeharkatu eta orbelaz estalitako bide-zidorra jarraituko

dugu, basotik EEI. norabidean igoz ezker aldetik, LEGATE mendiko hegia inguratzearen.

Oso argia edo nabaria ez den bidegurutzetako batera iritsitakoan, ezkerretik, pista batekin topatu arte jaitsiko gara. Pista beretik eskuinerantz jarraituko dugu eta Legatekin jaisten den pistarekin topatuko gara; pistatik jaitsiko gara BELTXUZI (655 m) lepora iritsiz. Inguru honetan pisten bidegurutzetako bat dago. Erdikotik igoz, pagadiaren barnetik igoko gara. Errepide estu bat zeharkatu eta aurrera jarraituko dugu. URRIZAL muinoko hegietatik igaroz, kordalera iritsiko gara. Beti pagadiaren ertzetik ibiliz, IÑABERRI, BAGATXETA eta ANDREGAIN lepoetatik igaroko gara; bide ondoan bi bunker ikusiko ditugu.

Gure aurrean ALKURRUNTZ,

BETARTE eta LARRO gainak ageri zaizkigu. Azkeneko mendia inguratzen duen pista hartuko dugu. Minutu gutxien buruan bihurtu hertsian batean pista abandonatu eta hegia 700 m-ko leporaino zeharkatzen duen zidorra hartuko dugu. Lepo honetatik, MEAKA lepotik datorren pista zabaletik behera jarraituko dugu; BAZTAN BAILARAKO bista ederrak. Ezkerrean bi baserri ageriko zaizkigu; beren eskuinetik jaitsi eta 50 bat metro aurrerago ezkererantz biratuko gara, porlanezko pisten bidegurutzetako bateraino iritsiz. AZPILIKUETA herrixka begibistan dago. Bidegurutzetako honetan, eskuinetik jarraitu eta Azpilikueta sartuko gara; ARIZKUNGO herria aurrean dugu, baita ezkerrean URRASUNGO baserriak ere. Ibilbidearen amaiera.




Lanbasa
- Dietetika
- Estetika
Bidezar, 7 ☎ 72 36 52


Keros
Enmarkatzeak
Arte ederrak
Dekorazioa
Opariak
Labeaga, 35 ☎ 72 41 61


GANBARA
LIBURUDENDA
Labeaga, 52
☎ eta faxa: 72 50 45



Xabier Arratibel Goiargi eta kimets-eko zuzendaria

✓Zer izan nahi zenuen umetan?

Medikua, astronauta, misiolaria...

✓Dutxatzeko ur hotza ala beroa?

Beroa.

✓Denbora librean zer egitea gustatzen zaizu?

Musika entzutea.

✓Kolore bat?

Urdina.

✓Ze opari hartuko zenuke gustura?

Opari guztiak gustatzen zaizkit.

✓Nor gustatuko litzaizuke ezagutzea?

Bizirik balego Kalkutako Teresa.

✓Asteburua deskantsatzeko ala gehiago nekatzeko?

Deskantsatzeko.

✓Zure gorputzeko zein atal aldatuko zenuke?

Pavarottiri aldatuko nioke ahotsa

✓Nora begiratzen diozu lehenik neska bati?

Begietara.

✓Zer falta zaio Urretxu-Zumarragari?

Areto on bat.

✓Zumarraga-Urretxuko gustuko toki bat?

Antiguako korua.

✓Zumarragan ezik non biziko zinateke gustura?

Itsas ondoan.(Ez Itsasondon)

✓Zein da duzun ohiturarik txarrena?

Gabonetan beranduegi oheratzea.

✓Bete gabeko amets bat?

Kontatzen badizuet, beteko al da?

✓Musika entzuteko, dantzatzeko, jotzeko ala kantatzeko?

Bizitzeko.

✓Kantu bat.

Ondo abestuta, edozein.

✓Zain egon ala besteak zure zain?

Gehienetan besteak nere zain.

✓Zer da gehien baloratzen duzun gauza?

Errespetoa.

✓Norengatik joango zinateke azken muturrera?

Maite dudan norbaitengatik.

✓Gaua ala eguna?

Biak.

✓Lo egiteko zer?

Denbora.

✓Gustoko janari bat?

Edozer,... txokolategkoa.

✓Ura, ala...

Normalean ura eta kafea.

✓Zein da esan bai, baina azkenean egin ez duzun hori?

Ditudan partitura guztiak ondo ordenatu.

MASTER HEZKOR

Zumarragako elektrogailu erakusketarik handiena!

Prezio eta modeloetan aukera aparta

Urdaneta, 5 ☎ 72 41 31



MAPFRE

Aseguru etxea

S. Esnaola, 6 ZUMARRAGA
☎ 72 20 00 faxa:72 24 00

PUBLIZITATEA

☎ 72 57 75

Erakusketa

✓ Urtarilaren 16tik 25era **IX. Komiki lehiaketara aurkeztutako lanen erakusketa**, Zumarragako Itarte Etxean.

Musika kontzertua

✓ Urtarilaren 17an iluntzeko 8etan Urretxuko San Martin de Tours elizan, kontzertua talde hauekin:
Urretxuko Musika Tailerra, Txistulari taldea, eta Goiargi abesbatza.

Ikastaroa

✓ Urtarilaren 21 eta 28an **Beiraren grabaketa azidoarekin** Urretxuko Kultur Etxean izango da arratsaldeko 3.30tan **Mairik** antolatuta.



● **BEÑAT**, Zorionak zure urte betetze egunean. Ondo pasa!!!

● Gustura egongo zara ezta **Borja?** Aurki zure urtebetetze eguna baita. **Zorionak!**



● Zorionak zure urtebetetzean eta kafea hartzeraz gontzertu naurzula espero dut. **ZORIONAK SALO!!!**

● **Zorionak Jon** zure gelako lagunaren partetik, ea opari asko egiten dizkizuten.




● Azkenean iritsi da zure urte betetze eguna, **ZORIONAK** zure lagun guztion partetik **AROA**.



● Ondo pasa ta gutxi gasta, kontuz txanpainarekin eta baita kartetara jolastearekin. **Zorionak Gus!**

● Zure osaba izeba eta lehengusuen partetik, zure lehenengo urtebetetzean **Zorionak UXUE!!**



● Bazen garaia, heldu da zure eguna, Zorionak **Maria Gloria de Jesus Arizmendiarieta**, lagunentzat **Glori**. Ondo pasa.

● Hilaren 23an 15 urte beteko dituzu eta Zorionak opa dizu lagun ezezagun batek. **ZORIONAK MAITANE!!!**




Mutua General de Seguros

Iparragirre, 11 URRETXU tel:722599

...baina harroago gurekin hain pozik dauden bezeroak izateaz


KALEBARREN 1 TEL. 72 50 22 ZUMARRAGA



Lagun Aroren 10 aseguratuetatik 9k kalitate/prezio erlaziorik onena dutela uste dute.



Istripuren bat izan duten Lagun Aroren bezeroen %94k azkar eta eraginkortasunez konpondu dutela adierazten dute.



Konpainiaren kaudimen, konfiantza, sendotasun, azkartasun eta berrikuntza mailari dagokionez, Lagun Aroren bezeroek "oso ona" edo "bikaina" erizten diote.